# Bestelako Xedapenak

**ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA**

**2791**

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 10ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, ondoko agindu honen hutsak zuzentzeko dena: «Agindua 2007ko martxoaren 2koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Ugao-Miraballes udalerriko Goikiri-San Roman aldean, 54 erregimen bereziko udal-etxebizitza tasatu esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena eta hainbat zehaztasun finkatzen dituena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, «argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada».

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko martxoaren 2ko Agindua 2007ko martxoaren 16an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (54. zk.). Agindu horren bidez Ugao-Miraballes udalerriko Goikiri-San Roman aldean, 54 erregimen bereziko udal-etxebizitza tasatu esleitzeko hautaketa-prozesua hasten zen eta hainbat zehaztasun finkatzen ziren. Agindu horretan huts bat gertatu denez, dagokion zuzenketa egiten da ondoren:

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengoa***.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko martxoaren 2ko Aginduak, Ugao-Miraballes udalerriko Goikiri-San Roman aldean, 54 erregimen bereziko udal-etxebizitza tasatu esleitzeko hautaketa-prozesua hasten zuen eta hainbat zehaztasun finkatzen zituen; agindu horretan 6545. orrian,

Honakoa dioen lekuan:

«Zortzigarrena.– Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean zozketa egin ondoren, esleipendun-kopurua eskainitako etxebizitza-kopurua baino txikiagoa bada, esleitu gabeko etxebizitzak zenbait etxebizitza-eskatzaileren artean zozketatuko dira. Etxebizitza-eskatzaile horiek lehenago aipatutako etxebizitzarik ez izateari buruzko eta diru-sarrerei buruzko baldintzak bete behar dituzte, azken bi urteotan Ugao-Miraballesko udal-etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal-ordenantzak jasotzen dituen udalerrieta-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**

**2791**

ORDEN de 10 de mayo de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se corrigen errores de la Orden de 2 de marzo de 2007 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones, para la adjudicación de 54 viviendas tasadas municipales de régimen especial en Goikiri-San Roman en el municipio de Ugao-Miraballes.

El artículo 18.2.c) del Decreto 217/2008 por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco establece que los errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido del documento, se subsanarán mediante disposición del mismo rango.

Advertidos errores de dicha índole en la Orden de 2 de marzo de 2007 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones, para la adjudicación de 54 viviendas tasadas municipales de régimen especial en Goikiri-San Roman en el municipio de Ugao-Miraballes, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 54, de 16 de marzo de 2007, se procede a su oportuna corrección:

En su virtud,

DISPONGO:

***Primero***.– En la Orden de 2 de marzo de 2007, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales por la que se iniciaba el proceso de selección y se determinaban diversas especificaciones, para la adjudicación de 54 viviendas tasadas municipales de régimen especial en Goikiri-San Roman en el municipio de Ugao-Miraballes, en la página 6545,

Donde dice:

«Octavo.– Una vez realizado el sorteo entre los demandantes que cumplan estos requisitos, si el número de adjudicatarios fuera menor que el de viviendas ofertadas, las viviendas sin adjudicar se sortearán entre aquellos demandantes de vivienda que, cumpliendo los requisitos relativos a carencia de vivienda e ingresos arriba citados, figuren empadronados en alguno de los municipios que a tal efecto se recojan en la Ordenanza Municipal reguladora de la vivienda tasada municipal aprobada por el Ayuntamiento

ko batean erroldatuta egon behar izan dira (esleipen-prozesuari hasiera ematen dion Agindua Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita bi urte horiek), eta gainera, etxebizitza tasatua eskatu behar dute Ugao-Miraballesko udalerrian».

Honakoa esan behar du:

«Zortzigarrena.– Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean zozketa egin ondoren, esleipendun-kopurua eskainitako etxebizitza-kopurua baino txikiagoa bada, esleitu gabeko etxebizitzak zenbait etxebizitza-eskatzaileren artean zozketatuko dira. Etxebizitza-eskatzaile horiek lehenago aipatutako etxebizitzarik ez izateari buruzko eta diru-sarrerei buruzko baldintzak bete behar dituzte, azken bi urteotan Ugao-Miraballesko udal-etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal-ordenantzak jasotzen dituen udalerrietan erroldatuta egon behar izan dira (zozketa berri hau egiten den egunetik zenbatzen hasita bi urte horiek), eta gainera, etxebizitza tasatua eskatu behar dute Ugao-Miraballesko udalerrian».

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 10a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

de Ugao-Miraballes, durante los dos últimos años, a contar desde la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden que dé inicio al procedimiento de adjudicación, y soliciten vivienda tasada en el municipio de Ugao-Miraballes».

Debe decir:

«Octavo.– Una vez realizado el sorteo entre los demandantes que cumplan estos requisitos, si el número de adjudicatarios fuera menor que el de viviendas ofertadas, las viviendas sin adjudicar se sortearán entre aquellos demandantes de vivienda que, cumpliendo los requisitos de carencia de vivienda e ingresos arriba citados, figuren empadronados en los municipios que a tal efecto se recogen en la Ordenanza Municipal reguladora de la vivienda tasada municipal aprobada por el Ayuntamiento de Ugao-Miraballes, durante los dos últimos años anteriores a la celebración de este nuevo sorteo y soliciten vivienda tasada en el municipio de Ugao-Miraballes».

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.